

UME BURASO GABEA



Hasparrengo Euskal-festetan bigarren garait-saria irabazi duen moldaera

Nor ote dut aita, nor ote dut ama?
Ori jakin naiak mundutik narama;
Zoin igingarriya
Ain lotsagarriya
Baita nere fama;
Its-aldi urtarik
Nola sendatzerik
Ez dezaket asma.

Aditu nuenean seigarren urtean
Kausitu nindutela ur-egi batean;
Sekulan geroztik
Ezda sosegurik
Ene biotzean;
Ez zen ain kaltea
Lurpean sartzea
Sortzean berean.

Aitaz ere bai baiñan amaz gelago,
Aren biotz gogorraz arriturik nago;
Arenbat abere
Gaistoena ere
Dire obeago,
Munduan bertzerik
Ez dute umerik
Baino maiteago.

Aita zurea ote edo amarena,
Zoinek izan zinduten oben geiena?

A! aita tristea!
Ni beldur zurea
Zela astapena;
Beraz zure gatik
Pairatu bear nik
Unenbertze pena.

Menturaz sortu gabe ninduzun ukatu
Ene ama ez naiz emaztetzat artu;

Orduan berean
Aren biotzean
Etsaiya zen sartu;
Arek lagundurik
Burua galdurik
Ninduen botatu.

Biziaren goibela beti gogoetan!
Dakidalarik segur enetzat kaltetan:

Egun bakotchear
Nai ber-berean
Ganaz ametsetan
Jauna! ni baitarat
Paira-bide on bat
Zure izenean!

Zareten bezalako ene burasoak
Orra zuen gaizkiek zer ondorioak!

Bat eta bertzea
Ola gertatzea
Oin erbal zoroak;
Ama zuregatik
Ditut geienik
Oñaze oiua.

Aantzia nauzula nik ez dut sinesten,
Baiñan agertze orrek zaitu aalkatzen;

Bai etsayen lantzek
Sistatu biotzek
Lan dute sendatzen;
Ene arabera,
Zuri zauri bera
Baitzaitzu gertatzen.

Eritasun andia zer da andiago,
Ezin ukanaren den gogo mina baino?
Gaitz-orrek artua
Ezinsendatua
Nola ni bainago;
Burutik utziak
Banitu guziak
Nuke obeago.

Adios aita ama biotzik gabeak!
Etsayaren azpiko zareten tristeak;
Azken orenetan
Nigar marrasketan
Gure ñazeak!
Nola arrapatu
Bear ote gaitu
Eternitateak?

Oraino, baldin-ere bizi bazarete,
Aitor berandu baten ordu zindukete;
Munduko ospeek,
Atsegin guziek,
Aitze bat dute;
Zuen uts andiek,
Oren lazgarriek
Unki bezaitzate!

M. DARROUPE,
Urruñarra.—Amerikan-dena.
